# ERANSKINAK

## 1. Eranskina. Behaketa orria

Batzarren behaketa taula:

| BATZARRA | EGUNA | ORDUA | FAMILIA ETORKINIK ETORRI DA? BAI/EZ | ZENBAT | OHARRAK |
|---|---|---|---|---|---|
| **HH4/HH5 geletako kurtso hasierako bilera** | Irailak, 22 | 13:00 | EZ | | Bilera horretan eskolako funtzionamenduaren inguruko zein gurasoen partehartzearen eskubidearen inguruko azalpenik ez da eman. Guraso elkarteko kide bat etorri da elkartearen inguruko informazioa ematera. |
| **Guraso elkartea** | Abenduak, 12 | 17:45 | BAI | Ama bat etorri da eta jarrera partehartzailea izan du batzar osoan zehar, eskolako funtzionamenduaren inguruko galderak eginez. Berea gelako beste ama batekin etorri da. | Bilera horretan Guraso Elkarteak burututako jardueren inguruan eztabaidatu da: eskolaz kanpoko jarduerak, eskolako jaiak eta eskola kontseiluko bileran hitz egingo diren gaiak. |
| **Eskola kontseilua** | Abenduak, 15 | 17:00 | EZ | | |
| **Eskola Kontseilua** | Martxoak,30 | 17:00 | EZ | | |

### Familia etorkinen eta bertako gurasoen erlazioen azterketa

Eskolatik irteterakoan, guraso asko eskolan bertan gelditzen dira beraien seme alabekin jolasten. Normalean, eskolara seme alaben bila etortzen diren guraso etorkinak gutxi izaten dira, baina badaude eskolan bertan gelditzen diren 3 familia. Horietatik bi ikerketarako elkarrizketatu direnak dira. Besteak, aldiz, hizkuntza mugen ondorioz ezin izan du bere iritzia eman (beste ama bat elkarrizketatu dudanean bertan egon da baina bera ez da hitz egitera ausartu).

Eskolan gelditzen diren guraso horiek bertako gurasoekin erlazionatzen diren behatu da:

| GURASOAK | BERTAKO GURASOEKIN ERLAZIONATZEN DIRA? | | | |
|---|---|---|---|---|
| | BETI | SARRITAN | BATZUETAN | INOIZ |
| AE-FP | Ama hau egunero bai guraso etorkinekin zein bertako gurasoekin egoten da. Oso erlazio ona dauka bertako gurasoekin eta bere semeak ere asko jolasten du bai beste guraso horiekin zein beraien seme alabekin ere. | | | |
| AE-ZA | | | Ama hau, nahiz eta hizkuntza dagoeneko nahiko ondo menperatzen duen, normalean bere familiar kideekin egoten da, horien artean AE-AS dagoelarik. Norbait hurbiltzen zaienean oso ondo hartzen dute eta erlazio ona daukate beste gurasoekin, baina normalean, bazter batean gelditzen dira. Bere alaba ondo moldatzen da beste umeekin baina askotan bere amarekin jolasten egoten da. | |
| AE-AS | | | Ama hau da bertoko gurasoekin gutxien erlazionatzen dena, hala ere, kurtso hasieratik orain arte aldaketa nabarmena ikusi zaio. Dagoeneko hizkuntza apur bat ulertzen hasi da eta elkarrizketa txikiak izaten saiatzen da norbait hurbiltzen zaionean. Bere semea beste umeekin ondo moldatzen da. | |

# 2. Eranskina: Eskolako dokumentuak

## 2.1. Ikastetxeko Antolakuntza eta Jarduera Araudia

Ondoren dokumentu horretatik guraso etorkinen parte hartzearen erlazioa duten puntuak zehazten dira:

# …………… ANTOLAKUNTZA- ETA JARDUERA-ARAUDIA

## ATARIKO TITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

**1. artikulua. ………………ren izendapena, irakaskuntzak eta ezaugarriak**

1…………ren ikastetxe publikoa da. Bertan, honako hauek ematen dira: Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza. Goian aipaturiko ikastetxea Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren mende dago. Ikastetxe horrek, hartara, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak ezarritako planeamenduari jarraiki ematen ditu, ikasturtez ikasturte, bere ikasketak.

2. Euskal Eskola Publikoaren Legeko 3.1. artikuluan xedatutakoaren arabera, ………ak ezaugarri hauek ditu: plurala da, elebiduna da, demokratikoa da, euskal gizartearen beharrak ase ditu, inguru sozial eta kulturalean sustraiturik dago, parte hartzailea da, desberdintasunak orekatzen ditu eta aniztasuna zaintzen du.

3. …………ak bere egin ditu Euskal Eskola Publikoaren Legeko 3.2. artikuluan ezarri diren xedeak. Ikastetxe horretako gobernu-organo, partaidetza-organo eta koordinazio didaktikorako organo guztiek, irakasleek eta irakasleak ez diren ikastetxeko langile guztiek goian aipaturiko helburuak betetzera bideratuko dute beren jarduna.

4. ………………ak, ikastetxeko bizikidetzaren oinarri gisa, bere eskubideak arduraz bete eta gainerakoen eskubideak errespetatuko dituela agintzen du.

## V. KAPITULUA. PARTAIDETZA-ORGANO BEREZIAK

### I. ATALA. GURASOEN BATZARRA, IKASLEEN GURASO-ELKARTEAK

**25. artikulua. Gurasoen Batzarra**

1. ………ko Gurasoen Batzarraren bidez, gurasoek ikastetxearen kudeaketan parte har dezakete. Ikasle guztien gurasoek edo tutoreek osatuko dute organo hori. Guraso Elkarteko Lehendakariak egingo du biltzeko deialdia eta bera izango da bilkuraren buru; ikasturte bakoitzaren hasieran gutxienez behin bilduko da Gurasoen Batzarra.

2. Gurasoen Batzarraren barruan beste organo bat egon daiteke, zuzeneko eta isilpeko botoaren bidez aukeratuko dena; barne-organo horrek Gurasoen Batzarraren bilerak antolatuko ditu eta Batzarrak hartutako erabakiak gauzatzen direla gainbegiratuko du.

3. Gurasoen Batzarrak honako funtzio hauek beteko ditu:

a) Egokitzat jotzen dituen proposamenak ikastetxeko gainerako organoetara luzatzea, organo horien eskumenekoak diren gaiei buruzkoak. Helarazi diezaieke, beraz, irakaskuntza-jardueren, prestakuntza-jardueren, eskolaz kanpoko jardueren eta jarduera osagarrien programa nahiz urteko kudeaketa-programa gauzatzearen balioespena.

b) Zuzendaritza taldearekin, ikastetxearen hezkuntza-proiektuaren garapenean ahalik eta lankidetza handiena lortze aldera.

c) Gurasoen ekimena sustatzea, ikastetxearen bizitzan aktiboki parte har dezaten.

d) Taldeko organoetan gurasoen ordezkari direnak Gurasoen Batzarraren bilkuretara agertzeko eskatzea, egindako kudeaketari buruzko informazioa eman dezaten.

e) Funtzionamendurako bere arauak onestea.

**26. artikulua. Ikasleen guraso-elkarteak eta ikasle-elkarteak**

1. ……………ak, indarrean dagoen otsailaren 10eko 66/1987 Dekretuak –Euskal Autonomia Erkidegoko ikasleen guraso-elkarteak arautzen dituenak– xedatzen duenaren arabera eratuko diren ikasleen guraso-elkarteak aintzatetsiko ditu, haien egoitza izango da eta ikastetxearen funtzionamenduan parte hartzera lagunduko die.

2. Zuzendariak zehaztuko du legalki eratu diren elkarteek zer lokal erabiliko dituzten modu iraunkorrean. Zuzendariak, elkarteen ordezkariek hala eskaturik, gune komunak erabiltzeko baimena emango die arestian aipatutako elkarteari.

3. ESKOLA KONTSEILUAn ordezkari aritzeko, guraso-elkarterik kide bat aukeratuko da, halaxe zehaztu baita arauetan. Aipatu berri dugun kasuan izan ezik, legalki eratu diren elkarteak ez dira inola ere baztertuko.

4. Ikastetxeko aginte-organoek ez dituzte ikasleen gurasoak jardutez edo ez-egitez behartuko elkarte eratuetako batean izena ematera ezta elkarte eratuetako bat diruz laguntzera ere.

**37. artikulua. Ikasle etorkinak hartzeko programa**

………… Inmigrazio-euskal planaren esparruan jartzen denarekin ados dagoen etorkinentzat Harrera Plan bat izango du. Non:

1. Ikasleek Curriculumaren jarraipen normalizatua egitea bermatzen den eta bere autonomia progresiboa ahalbidetzen den.

2. Ikasleen hezkuntza-beharrak zehazten diren eta erantzun egokia eta pertsonalizatua ematen den.

3. Hezkuntza Proiektua eta ikastetxearen funtzionamendua ikasle berriei eta euren familiei edo legezko tutoreei ezagutzera ematen den.

## 2.2.Ikastetxeko Harrera plana

Hona hemen eskola horretako Harrera Planean familia etorkinekin elkar trukatzeko zehazten diren datuak:

**IKASLE ETORKINEN ESKOLATZE PLANA**

Ikastetxean hartu beharreko erabakiak:

1. Matrikulazioa
2. Hasierako harrera

    - Familiarekiko lehenengo harremana da. Jarrera baikor eta ireki batekin adierazten badiegu nor garen, zer eskaitzen diegun gure ikastetxean eta zer espero dugun beraiengandik .
    - Bilera honen helburuak:

        - Ikasleari buruzko oinarrizko informazioa (hasierako txostena)
        - Gure Hezkuntza sistemari buruz informatzea eta beraien galderak erantzutea
        - Ikastetxearen antolaketari buruz informatzea

            - Eskolako ordutegia eta egutegia, gelako ordutegia, eskolaz kanpoko ekintzak.
            - Eskolako helburuak eta nortasunaren helburuak.
            - Gurasoen partaidatzea eskolan eta gelako ekintzetan.
            - Ikasleak behar dituen materialak eta ordaindu behar diren zerbitzuak.

    - Ikastetxearen zerbitzuen berri ematea: jangela, garraioa, eskolaz kanpoko ekintzak, irteerak eta abar.
    - Laguntza ekonomikoak lortzeko modua erakutsi (jantokia, testu liburuak eta abar.
    - Gizarte zerbitzuen berri ematea: gizarte laguntzaileak eta abar
    - Familiari eta ikasleari tutorea aurkeztea.

3. Eskolatzea

    - Zein mailetan sartzea.
    - Ikastetxeko pertsonalari informatzea, jantokiko zaintzaileei, monitoreei eta abar.
    - Aurkezpena gelan

4. Giza baliabideak eta baliabide materialak.

    - Berritzeguneko orientabideak
    - Klaustroko irakasleen laguntza zuzena
    - Kontsultorearen eta Ptaren laguntza.

## 2.3. Guraso elkarteko estatutuak

Ondoren, guraso elkarteko estatutuetatik familia etorkinei eragiten dieten puntuak zehazten dira:

**ELKARTEAREN HELBURUAK**

**2. Artikulua.-**

Elkarte honen helburuak dira:

1) ……… Herri Eskolako ikasleen gurasoek eta tutoreek Ikastetxearen jardunean eta kudeaketan erabateko parte-hartzea izateko duten eskubidea sustatzea eta begiratzea, Euskal Eskola Publikoaren legeak eta indarrean diren gainerako xedapenek diotenaren arabera.

2) Guraso eta tutoreei beren seme-alaben eta ardurapekoen heziketarekin zerikusia duten gaietan laguntzea, aholku ematea eta beren jardueren suspergarri izatea.

3) Ikastetxearen heziketa jardueretan parte hartzea.

4) Irakaskuntzaren kalitatea etengabe hobetzea, bai didaktikari dagokionez bai formazioari dagokionez, ikaslearen ahalmen teknikoa eta oreka pertsonala indartuz eta giza elkartasunean, justizian eta askatasunean oinarrituriko balioak eta sentimenak landuz.

5) Zerbitzuak antolatzea bai Ikastetxeko guraso eta tutoreentzat bai ikasleentzat.

6) Gurasoek eta tutoreek Ordezkaritza Organo Gorenean /Eskola Kontseiluan ordezkaritza eta partaidetza ahalik eta handiena izan dezaten sustatzea.

7) Guraso eta tutoreen zein ikasleen formaziorako jarduera osagarriak antolatzea, besteak beste, euskal hizkuntza eta kultura sustatzekoak eta, indarreko arauak errespetatuz, haien gain hartu nahi dituzten guztiak, Estatutuetan hala ezarrita baldin badago.

Helburu horiek guztiak gauzatzeko, aurretik legeak ezartzen dituen jarraibideak beteta, hemen zerrendatuta agertzen diren ekintza hauek, edo

**FINES QUE SE PROPONE**

**Artículo 2.-**

Los fines de la Asociación son:

1) La promoción y defensa del derecho de los padres, madres y tutores/as del alumnado que asiste al Centro Público …… a una participación plena en el funcionamiento y gestión del Centro, de conformidad con lo contenido en la Ley de Escuela Pública Vasca y demás disposiciones vigentes en cada momento.

2) Orientar, estimular y asistir a los padres, madres y tutores-as en todo aquello que concierne a la educación de sus hijos, hijas o pupilos-as.

3) Colaborar en las actividades educativas del Centro.

4) La mejora permanente de la calidad de enseñanza, tanto en su aspecto didáctico como formativo humano, potenciando la capacidad técnica del educando, su equilibrio personal y el desarrollo de los valores y sentimientos de solidaridad social, justicia y libertad.

5) Organización de servicios tanto para los padres, madres y tutores/as como para el alumnado del Centro.

6) Promover la representación y la participación de los padres, madres y tutores-as en el Órgano Máximo de Representación (Consejo Escolar).

7) Organizar actividades formativas complementarias en beneficio de padres, madres tutores/as y alumnado, entre ellas las encaminadas al fomento de la lengua y cultura vasca, y las que respetando la normativa en vigor, decidan asumir, cuando así se establezca en sus respectivos estatutos.

Para la consecución de dichos fines se llevará a cabo, previo cumplimiento de los requisitos legales establecidos, las siguientes actividades que se precisan con carácter meramente enunciativo y no

hemen agertzen ez diren beste hainbat, eramango dira aurrera:

- Informazioa emateko, laguntza psikologikorako, aisiarako, lanbide orientaziorako eta abarretarako zerbitzu orokorrak.

- Testu liburuak banatzeko sistema.

- Eskola orduez kanpoko jarduerak eta eskolako jardueren osagarri direnak antolatzea, adibidez bidaia kulturalak, kirol txapelketak, ekintza soziokulturalak etab.

- <u>Hitzaldiak, formazio ikastaroak, guraso eskolak etab. antolatzea guraso eta tutoreen parte hartzeari buruz.</u>

Aurreko idatz-zatian azaldutako jarduerak

gorabehera, elkarteak, bere xedeak betetzeko, honako hauek egin ahalko ditu:

- Helburuak betetzeko edo horretarako baliabideak biltzeko era guztietako jarduera ekonomikoak gauzatu.

- Era guztietako ondasunak edozein tituluren bidez eskuratu eta eduki, eta mota guztietako egintzak eta kontratuak egin.

- Nolanahiko ekintzak burutu, betiere legeekin eta Estatutuekin bat etortzekotan.

limitativo:

- Organización de servicios generales de apoyo, de orden informativo, asistencial, psicológico, animación de tiempo libre, orientación profesional, etc.

- Organización del sistema de distribución de libros de texto.

- Organización de actividades extraescolares y complementarias de la actividad lectiva, como viajes culturales, competiciones deportivas, actividades socioculturales, etc.

- <u>Organizar conferencias, cursos formativos y escuelas de padres y madres sobre los diversos aspectos de la participación de los-as padres, madres y tutores/as.</u>

Sin perjuicio de las actividades descritas en el

apartado anterior, la Asociación, para el cumplimiento de sus fines podrá:

- Desarrollar actividades económicas de todo tipo, encaminadas a la realización de sus fines o a allegar recursos con ese objetivo.

- Adquirir y poseer bienes de todas clases y por cualquier título, así como celebrar actos y contratos de todo género.

- Ejercitar toda clase de acciones conforme a las Leyes o a sus Estatutos.

# 3. Eranskina. Elkarrizketako galderak.

- **Zuzendariari egiteko:**

Zergatik galdera horiek?: Ikastetxeko zuzendariarekin zein irakasleekin hitz egiterakoan, eskolak familia etorkinen partaidetza sustatzeko erabiltzen dituen estrategiak ezagutu nahi dira, baita kulturartekotasuna bermatzeko jarduerarik egiten duten ere.

1. Eskolak badu harrera planik?
2. Zerbait egiten duzue guraso etorkinak eskolara hurbiltzeko?
3. Formazio edo hizkuntza ikastarorik eskaintzen duzue?
4. Eskolako erabakietan guraso etorkinek parte hartzen dute?
5. Erabaki horietan beraien iritzia eskatzen duzue? Eskatzekotan feedback-a jasotzen duzue?

- **Irakasleei egiteko**

Zergatik galdera horiek?: Zuzendariaren kasuan bezala, irakasleek guraso etorkinen parte hartzea bermatzeko estrategiarik erabiltzen duten ezagutu nahi da, baita kulturartekotasuna sustatzeko gelan jarduerarik antolatzeko prest dauden ere.

1. Zer nolako partaidetza dute zure gelako guraso etorkinek?
   a. Batzarretara etortzen dira?
   b. Eskolako ekintzatan parte hartzen dute?
   c. Gelako jardueratan parte hartzen dute?
2. Zerbait egiten duzu hori sustatzeko?
3. Eskolako edo gelako jardueratan parte hartzea gustatuko litzaizuke? Beraien herriko kultura, tradizioak edota bizimodua kontatuz adibidez….
4. Aberasgarria izango litzatekela uste duzu? Posiblea izango litzateke?

- **Guraso etorkinei egiteko**

Zergatik galdera horiek?: Guraso etorkinak elkarrizketatzerakoan, beraien parte hartzea zein den ezagutu nahi izan da, baita kulturartekotasuna sustatzeko eskolako egunerokotasunean parte hartzeko prest egongo liratekeen ere.

1. ¿Qué relación tenéis con la escuela? Participáis en…
   a. Reuniones con la profesora

b. Decisiones de la escuela
c. Actividades en el aula

2. ¿Estáis content@s con esa relación u os gustaría participar más?
3. Si impartieran cursos de formación o de idiomas ¿os gustaría participar?
4. ¿Os gustaría participar en las actividades escolares? Por ejemplo dando información de vuestra cultura, tradiciones, vivencias,…
5. Qué relación tenéis con los demás padres/madres de la escuela?

- **Bertako gurasoei egiteko**

Zergatik galdera horiek?: Bertako gurasoen inkestak burutzerakoan familia etorkinak eskolako jardueretan zein erabakietan parte hartzearen aldekoak diren ezagutu nahi da, etorkinenganako aurreiritzirik duten aztertuz.

1. ¿Qué os parece que las familias inmigrantes participen en las actividades y decisiones de la escuela?
2. Os gustaría que participen dentro de las aulas de vuestros hij@s? Contando cosas de su cultura, tradiciones, vivencias,…
3. ¿Os parece favorecedor o perjudicial?

- **Guraso elkarteko kideari egiteko**

Zergatik galdera horiek?: gurasoen elkarteko kidearekin hitz egiterakoan, etorkinen parte hartzea sustatzeko jarduerarik antolatzen duten ezagutu nahi da.

1. Guraso etorkinek eskolako guraso elkartean parte hartzen dute?
2. Elkarteak jarduerarik antolatzen du hori sustatzeko?
3. Hizkuntza edo formakuntza kurtsorik antolatzen duzue? Antolatzekotan, parte hartzen dute?

# 4. Eranskina. Baimen eskaera

INFORMATUTAKO BAIMEN-DOKUMENTUA

EHUko Haur Hezkuntzako 4.mailako ikaslea naiz eta urte honetan zehar Gradu Amaierako Lana garatu behar dut eta horretarako zure kolaborazioa eskatzen dut.

Aipatutako lanaren gaia kulturartekotasuna bermatzeko guraso etorkinen partaidetzak duen garrantzia aztertzea da.

Lanaren helburuak ondorengoak dira:

- Kulturartekotasuna bermatzeko eskolan familia etorkinen partaidetzak duen garrantzia ezagutzea.
- Bertako eskolan guraso etorkinen partaidetza sustatzeko erabiltzen dituzten jarraibideak aztertzea.
- Hobetzeko proposamen bat egitea.

Zure parte-hartzea Ikerketa honetan borondatezko eta isilpekoa da. Nahi izanez gero, ikerketan parte hartzeari uko egiteko edo edozein galderari ez erantzuteko eskubidea izango duzu.

Zalantzarik izatekotan edo informazio gehiago behar izanez gero, nirekin kontaktuan jartzea eskertuko nizuke. Eskerrik asko.

.......................
Telefonoa: ............

Era libre eta boluntario batean ikerketa honetan parte hartu nahi baduzu zure esperientzia emanez, baimen hau sina dezakezu.

___________________ *GRAL-eko ikaslearen sinadura*

_______________________________ *parte hartzen duen pertsonaren izena eta sinadura*

Data eta tokia: 2017ko ____________ren ___, ___________________

DOCUMENTO DE CONSENTIMIENTO INFORMADO

Soy estudiante de 4 curso de educación infantil de la EU de Magisterio de Bilbao de la UPV/EHU y durante este año tengo que desarrollar un Trabajo Fin de Grado para el cual solicito su colaboración.

El tema de dicho trabajo es la importancia de la participación de las familias inmigrantes en la escuela para fomentar la interculturalidad.

Los objetivos de dicho trabajo son:

- Analizar la importancia de la participación de las familias inmigrantes en la escuela
- Investigar qué participación se da en esta escuela
- Proponer un plan de mejora

Su participación en este estudio es voluntaria y confidencial. Usted siempre tiene derecho a renunciar a participar en el estudio o a no contestar a cualquier pregunta.

Por favor no dude en ponerse en contacto conmigo para cualquier otra información que necesite. Muchas gracias.

………………….

Teléfono: ………………

Si está conforme en participar de manera libre y voluntaria en este estudio aportando su experiencia y reflexiones puede firmar este consentimiento.

| | |
|---|---|
| _________________ | _____________________________ |
| *Firma de la alumna del TFG* | *Nombre y firma de la persona que participa* |

Fecha y Lugar: En __________________ a ______de ________ del ________.

# 5. Eranskina. Elkarrizketen transkripzioak

## • Zuzendaria

### ➢ Z-LE

1. ***Eskolak badu harrera planik?***

Bai.

2. ***Zerbait egiten duzue guraso etorkinak eskolara hurbiltzeko?***

Harrera plana. Etorkinak eskolara datozenean eskolari buruz jakingainean ipintzeko, eskolaren funtzionamendua ezagutarazteko. Oraindik gitxi direz, ez dau atzerritar asko baina gorakada handia ikusi dogu. Ikusten dozun moduen gehienak haur hezkuntzan dauz.

3. ***Formazio edo hizkuntza ikastarorik eskaintzen duzue?***

Ez. Udaletxeak antolatzen deuz.

4. ***Eskolako erabakietan guraso etorkinek parte hartzen dute?***

Gutxi, ez dira askorik inplikatzen. Badago ama atzerritar bat hasieratik eskolan oso sartuta egon zala, AMPAn, euskara ikasten hasi zen,… baina ez da ohikoena.

5. ***Erabaki horietan beraien iritzia eskatzen duzue? Eskatzekotan feedback-a jasotzen duzue?***

Besteak bezala, baina ez dugu feedback askorik jasotzen.

## • Irakasleak:

### ➢ I-ZG (2 haur atzerritar gelan)

1. ***Zer nolako partaidetza dute zure gelako guraso etorkinek?***
    a. ***Batzarretara etortzen dira?***

Momentuz aurten egin dugun batzar bakarra kurtso hasierakoa izan da eta horra etorri ziren eta nire gelan guraso etorkinak zenbat daude….2 daude eta bien gurasoak etorri ziren; Gero bakarkako batzarrera ere etorri ziren abenduan eta bai beste gurasoak bezala.

   b. ***Eskolako ekintzatan edo gelako jardueretan parte hartzen dute?***

Eskatu dugunean laguntza, adibidez izenaren proiektuarekin, etxetik artelanak eginda ekartzea eskatu geniela, hor beste guztiak bezala parte hartu dute.

2. ***Zerbait egiten duzu hori sustatzeko?***

Ba…bueno…nik egiten dudana da gurasoren batek ez badit ulertzen…adibidez XX-en amak konturatzen naiz ez didala oso ondo ulertzen, ez duelako ondo menperatzen erdera eta hor saiatzen naiz esaten ba badaukazu zalantzaren bat galdetu ez gelditu dudarekin eta gauzak igual idatziz ematen dizkiot oharra esan beharrean, hori da egiten dudana.

3. ***Eskolako edo gelako jardueratan parte hartzea gustatuko litzaizuke? Beraien herriko kultura, tradizioak edota bizimodua kontatuz adibidez….***

Bai oso aberasgarria izango zen beste umeentzat, guretzat ere eta eskolarentzat bebai.

4. ***Aberasgarria izango litzatekela uste duzu? Posiblea izango litzateke horrelako zerbait antolatzea gelan?***

Bai, nik uste dot baietz. Niri okurritzen zaidan gauza bakarra izango zan gonbidatu etortzea igual gelara kontatzeko ez dakit, hango jairen bat, hango janari tipikoak eta halako zeozer…ez dakit, beraiek nahi duten zeozer eta prest egongo baziren ez dakit oso erreza izango zan ze igual lanean badabiltzez edo, baina bestela gauza oso polita izango zen.

- **I-SE (**Haur atzerritar 1 gelan)

1. ***Zer nolako partaidetza dute zure gelako guraso etorkinek?***
    a. ***Batzarretara etortzen dira?***
    b. ***Eskolako ekintzatan parte hartzen dute?***
    c. ***Gelako jardueratan parte hartzen dute?***

Batzarretara beste gurasoak bezala etorri ziren eta gelatik gurasoen partaidetza eskatu dogunean bardin bardin parte hartu dute.

2. ***Zerbait egiten duzu hori sustatzeko?***

Ez dut ezer berezirik egiten. Ez dot eukin arazorik.

3. ***Eta noizbait hizkuntza arazorik izan duzunean zerbait egin duzu?***

Adibidez XX ikaslea aurten hasi dala eta ama kanpokoa dala ikusten dot oraindik ez dakiela eskola zelan funtzionatzen duen, horreri esan notzen emangotzut zerrenda umeena zuk lantzeko eta pauta batzuk emon notzan baina gero nire gelako guraso etorkinak (ikasle 1 dago) presta dauz danerako. Ez dabe behar beste batzuk baino gehiago. Beste batzuk igual gehiago behar dabe bertakoak direnak ordun kasu honetan nik ezin dot esan honek desberdinak direnik.

4. ***Eskolako edo gelako jardueratan parte hartzea gustatuko litzaizuke? Beraien herriko kultura, tradizioak edota bizimodua kontatuz adibidez….***

Bai, ondo egongo litzateke.

5. ***Aberasgarria izango litzatekela uste duzu? Posiblea izango litzateke?***

Bai, aberasgarria izango zan eta bai posiblea izango zala uste dot. Hori bai igual nahiko neukena da beraiek etortzen badira zerbait kontatzera bertakoei ere aukera hori emotea.

- **I-PA** (Haur atzerritar bat gelan)

1. ***Zer nolako partaidetza dute zure gelako guraso etorkinek?***
    a. ***Batzarretara etortzen dira?***

Nik bat dakot eta ez da etorri. Guraso guztiekaz egin genuen lehen batzarrera ez da etorri. Deitutatzenatan umean informea emoteko horretara bai.

b. ***Eskolako ekintzatan parte hartzen dute?***

Ez dot uste.

c. ***Gelako jardueratan parte hartzen dute?***

Ez, nik ez dot pentsetan askorik eiten deurienik. Inauterietan eta gelditu garenien pailasoak ikustera eta horrek gauzetara ta ez dire etorri.

2. ***Zerbait egiten duzu hori sustatzeko?***

Amak ez du ulertzen askorik, eitekotan zeozer berba aitegaz eta aitegaz bebai kostata. Eta nik bakarrik emontentzat badakitzenez emailek nahiz eta euskaraz eta erdaraz bota ez dauriela jakingo zer dan, eguerdian ama datorrenez beran bile ba esatentzat edo azaltzentzat ba hau egingo dogu edo ihauterietan horrela mozorrotuko gara, berari esplikazino gehiau emoten. Batzutan geldituten naz…benetan ulertu dozt? Hori bai.

3. ***Eskolako edo gelako jardueratan parte hartzea gustatuko litzaizuke? Beraien herriko kultura, tradizioak edota bizimodua kontatuz adibidez….***

Bai, bai, zergatik ez, noski.

4. ***Aberasgarria izango litzatekela uste duzu? Posiblea izango litzateke?***

Pasaten dana ez dakienez hizkuntza erreztasunik eitzeko berba, kosta eingo dakiela eta amak ezin deu. Aitak zeozer gehiau baina koste eiten jako. Zaila da hizkuntza aldetik. Baina aberasgarria bai.

- **Guraso etorkinak**

➢ **AE-FP** (3 urteko ikasle baten ama)

3. ***¿Qué relación tenéis con la escuela? Participáis en…***
    c. ***Reuniones con la profesora***
    d. ***Decisiones de la escuela***
    e. ***Actividades en el aula***

A las reuniones si voy. Y he ido a alguna reunión del AMPA.

4. ***¿Estáis content@s con esa relación u os gustaría participar más?***

Me gustaría tener más noticias de lo que hace la escuela para mi hijo o mi hijo en la escuela. Más reuniones que 2 o 3 veces al año.

5. ***Si impartieran cursos de formación o de idiomas ¿os gustaría participar?***

El euskera para mí es muy difícil asique ahí ya creo que me daría un poco igual. Me gustaría aprenderla más tarde para él. Lo más mínimo. Para saber yo lo que pone cuando va a tener deberes o lo que sea.

6. ***¿Os gustaría participar en las actividades escolares? Por ejemplo, dando información de vuestra cultura, tradiciones, vivencias, …***

Tiempo no tengo. Y además como hay que contarles en euskera.

- ***Pero tú a la escuela puedes ir y contar en castellano también, en eso no hay ningún problema (eskolan egiten ari diren jarduera bati buruz).***

Ah vale.

- ***Los padres que están viniendo ahora el que no sabe en euskera lo está contando en castellano, la cuestión es participar con los niños.***

A mí eso me ha echado para atrás…Como todo lo de la escuela es en euskera.

Otro punto también es las reuniones. Cuando se hacen las reuniones que siempre se habla en euskera y castellano, ¿no? En euskera se habla muchísimo más que en castellano. Se explica muchísimo más en euskera que cuando lo traducen lo recortan. Eso es lo malo. Porque siempre en cualquier reunión da lo mismo del colegio o del AMPA tú oyes un cuarto de hora en euskera y 7-8 minutos en castellano. Eso sí que molesta. Porque no te enteras de muchas cosas de las que se ha hablado y se ha dicho en euskera.

7. ***¿Qué relación tenéis con los demás padres/madres de la escuela?***

Bien, solo que igual se habla en euskera. Es como hablo yo con XXX en rumano. Aunque tú estés delante a mí me sale hablar así con mi hijo o mi marido, es así y eso sí que lo entiendo. Además, que cuando me hablan a mí personalmente me habla en castellano. Pero en principio bien, yo estoy muy contenta y nunca he notado ninguna diferencia de actitud.

- **AE-ZA** (3 urteko ikasle baten ama).

Elkarrizketa hau egin nuenean 3 urteko beste ama etorkin batek ere parte hartu zuen. Ama hori ez zen erdaraz oso ondo moldatzen eta bestearen erantzunak baieztatzea baino ez zuen egiten. Hortaz, guraso etorkin horren erantzunak ez dira elkarrizketa honetan aipatu.

1. ***¿Qué relación tenéis con la escuela? Participáis en…***
    a. ***Reuniones con la profesora***
    b. ***Decisiones de la escuela***
    c. ***Actividades en el aula***

Si, vamos a las reuniones.

2. ***¿Estáis content@s con esa relación u os gustaría participar más?***

Yo estoy contenta como estoy ahora, pero si puedo participar más yo estoy encantada.

3. ***Si impartieran cursos de formación o de idiomas ¿os gustaría participar?***

¡Hombre!!! Puffff…yo creo que sí. Por supuesto que sí.  Yo además como tengo a la mayor…si se hacen algunos cursos para aprender idiomas encantada.

4. ***¿Os gustaría participar en las actividades escolares? Por ejemplo, dando información de vuestra cultura, tradiciones, vivencias, …***

Si, exacto. A XXX le encanta cuando sabe que hay algo en la escuela o hay que hacer algo para llevar a la escuela. Como todos los padres que participamos con nuestros hijos. Pero como trabajo no tengo mucho tiempo.

5. ***¿Qué relación tenéis con los demás padres/madres de la escuela?***

Si, contentos. Bueno hay de todo, como en todas partes, pero en general gente maja toda. Al ser un pueblo pequeño todos nos conocemos. No es una ciudad aquí es distinto. Como todos nos conocemos y eso nosotros encantados. Además aquí en XXX, en un principio cuando tuve que venir aquí a vivir me parecía algo…no hay nada…me costó, pero ahora si me pagan no me voy. En Mungia voy, y tantos niños que al final te da miedo dejar a la niña.

- **Bertako gurasoak**

## ➢ **BG-AM** (4 urteko ikasle baten ama)

1. ***¿Qué os parece que las familias inmigrantes participen en las actividades y decisiones de la escuela?***

Pues lo más correcto, ¿no? Si vienen a la escuela es por algo. Hay que meterse también en el papel del otro. Si están inscritos en la escuela son padres como el resto, sean de aquí o sean de fuera. No sé, eh, es lo que pienso yo.

2. ***¿Os gustaría que participen dentro de las aulas de vuestros hij@s? Contando cosas de su cultura, tradiciones, vivencias, …***

Si, nunca está de más saber esas cosas.

3. ***¿Os parece favorecedor o perjudicial?***

Favorecedor y beneficioso para los críos. Eso si lo que no me gustaría es que impongan sus costumbres, pero por lo demás me parece beneficioso.

## ➢ **BG-DU** (3 urteko ikasle baten aita)

1. ***Zer iruditzen zaizu familia etorkinek eskolako jardueretan eta erabakietan parte hartzea?***

Ondo. Hemen etorkin gutxi dau halan da be, gehiago egongo balira ez dakit berdina izango litzatekeen.

2. ***Zuen seme alaben geletan parte hartzea gustatuko litzaizueke? Beraien kultura, tradizio edo bizipenak kontatuz***

Bai.

3. ***Aberasgarria edo kaltegarria iruditzen zaizue?***

Aberasgarria.

- **BG-JB** (4 urteko ikasle baten ama)

1. ***¿Qué os parece que las familias inmigrantes participen en las actividades y decisiones de la escuela?***

Pues muy bien la verdad, como los demás.

2. ***¿Os gustaría que participen dentro de las aulas de vuestros hij@s? Contando cosas de su cultura, tradiciones, vivencias,…***

Sí, claro que sí.

3. ***¿Os parece favorecedor o perjudicial?***

Favorecedor.

- **BG-MI** (3 urteko ikasle baten ama)

1. ***Zer iruditzen zaizu familia etorkinek eskolako jarduеretan eta erabakietan parte hartzea?***

Ondo, gurasoak badira bai. Baina orokorrean ez dute bat ere parte hartzen.

2. ***Zuen seme alaben geletan parte hartzea gustatuko litzaizueke? Beraien kultura, tradizio edo bizipenak kontatuz***

Bai, igual dost.

3. ***Aberasgarria edo kaltegarria iruditzen zaizue?***

Aberasgarria, danatatik ikasten da.

- **BG-IL** (5 urteko ikasle baten aita)

1. ***Zer iruditzen zaizu familia etorkinek eskolako jarduеretan eta erabakietan parte hartzea?***

Parte hartzea ondo dagoela eta erabakiarena…lehenengo parte hartzea egon behar da, hemeko ohituretara egiteko eta behin herrian sartuta dauzenean ondo egon daitekeela

bebai erabakietan parte hartzea. Izan leike eurak beste ohitura batzuetatik etorritea eta ondo ez ulertzea hemen dagoen erabakitzeko era.

***2. Zuen seme alaben geletan parte hartzea gustatuko litzaizueke? Beraien cultura, tradizio edo bizipenak kontatuz***

Bai, bai.

***3. Aberasgarria edo kaltegarria iruditzen zaizue?***

Aberasgarria.

- **<u>Guraso elkarteko kidea</u>**

## ➢ GE-IG

***1. Guraso etorkinek eskolako guraso elkartean parte hartzen dute?***

Bai, sartute dauz. Adibidez badago guraso bat, herri honetan hainbat urte daramatzana hasieratik oso inplikatuta egon dana.

***2. Elkarteak jarduerarik antolatzen du hori sustatzeko?***

Ezer bereziki ez.

***3. Hizkuntza edo formakuntza kurtsorik antolatzen duzue? Antolatzekotan, parte hartzen dute?***

Ez. Adibidez orain udaletxeak "gurasolagu" antolatzen dago, gurasoen artean euskaraz hitz egiteko baina gu ez gaude sartuta. Nik dakidala guraso elkarteak ez du horrelakorik egiten.